

ARESTIREN NAZIOA, ANTZERKIA

Karlos del Olmo



Harremanetarako:
EHAZE-Antzerkizale elkarte
info@ehaze.eus
<http://www.ehaze.eus/>

Izenburua: Arestiren nazioa, antzerkia.
Egilea: Karlos del Olmo.
Hitzaurrea: Jon Kortazar.
Hitzostea: Jaime Valverde.
Argitaratzailea: EHAZE-Antzerkizale elkarte.
Ezaugarriak: Saiakera. 176 orrialde. 14×22cm.
Hizkuntza: Euskara.
Argitalpen data: 2016ko abendua.
Lizentzia: Creative commons.
ISBN: 978-84-617-5958-3

Arestiren nazioa, antzerkia



Gabriel Arestiren literatura dramatikoaren eta idazlearen jarrera soziopolitikoaren arteko loturak topatu eta aztertu nahi ditu liburu honek, metafora halako bat eginda: zelan edo halan, amesturiko nazioa antzerkiaren bitartez irudikatzen eta antzektokira eramaten saiatu zela Aresti. Bestela esanda, Arestik aldarrikatzen zituen gizartea, nazioa, hizkuntza eta kultura, nonbait, idazlearen idazketa dramatikoan mamituta agertzen direla erakustea da liburuaren helburuetako bat. Aresti dramagilearen eta antzerki pentsalariaren balioa nabarmentzea da beste xede nagusietako bat, haren antzezlan guztiek egun ere antzektu gabe badiraute ere, euskal antzerkia jarri nahi izan baitzuen XX. mendean munduan izan ziren joera dramatikoekin bat egiteko moduan, alderdi teorikoan zein sormenezkoan, garai hartako egoera soziopolitikoak mugakizun handiak ezarri zizkion arren. Egun, ezagunagoa da Aresti poeta moduan, merezimenduak baititu, baina euskal gizarteak Gabrielen antzerkigintzarekin zor halako duenez gero, egileak merezi duen omenaldirako harri bat jarri gura du saio labur honek.

«Karlos del Olmoren meritua izan da Gabriel Aresti bere garaiko inguru ideologikoan eta artistikoan jartzea. Garbi dago ez dela erraza Arestiren nortasuna definitzea, eta abertzaletasunaren eta marxismoaren artean kokatzen zelarik, kritika gogorak jaso zituela. Baina ez da zalantzarik euskarari eman ziola lehentasuna liburu honen orrien bidean jarri diren aipu zerrenda luzea begiratzuz gero. Ez da meritu txikia, inondik ere, garaiko giro artistikoan kokatzea, eta batez ere Agustin Ibarrolarekin izan zuen harremanaren loturak ongi marraztea, liburu honen egileak egin dituen moduan».
(Jon Kortazar)

«Misterio bat iruditzen zait Saizarbitoria bera, Lete eta Atxaga teatro-mundutik ia erabat aldendu izana helduaroan, gaztetan biziki murgilduta egon arren. Eta traiziotzat hartu behar dugu euskal intelektual askok -batik bat Hegoaldekoek- herri tradizioari -batik bat Iparraldekoari- egindako arbuio historikoa.

Obra honekin, Arestiren gaineko paradoxa edo desoreka hori konpontzen lagundu du del Olmok. Saizarbitoriaren baieztapena, seguruenez, beste ezer baino gehiago aldarrikapena da, baina argi dago euskal letrek zor bat zeukatela Aresti dramagilearekin. Bistan da tamaina horretako dramagile baten kasuan, ikerketa gehiago beharko direla, baina hemen planteatzen den gogoeta abiapuntu zabal eta sakona dugu, zalantzarik gabe» (Jaime Valverde)

Karlos del Olmo

Idazle eta irakaslea, itzultzaile eta interprete da ogibidez Donostiako Udalean, 1993az geroztik.

EHUko Maisu Eskolan egin zituen ikasketak lehenengo, eta Euskal Filologian lizentziatu zen gero Deustuko Unibertsitatean. Itzulpen Masterra egin zuen EHUn, eta zinpeko itzultzaile ere bada.

Muskizeko ikastolako eta Gabriel Aresti euskaltegiko irakasle lanak Barakaldoko Antzerki Lantegi Iraunkorreko zuzendaritzarekin uztartu zituen. Halaber, euskararen irakaskuntzarako zenbait materialen egile da (*Berbetan* eta *Berriketan* metodoak), eta baita hainbat material didaktikoren itzultzaile ere (hezkuntza softwarea, testak...).

Itzulpengintzako eta literaturako zenbait adarren inguruko eskolak eman ditu UEUn, EHUn eta beste hainbat erakundek antolatutako ikastaroetan. Bestalde, artikulu ugari idatzi du euskal itzulpengintzari buruz, besteak beste, hainbat hedabidetan.

EIZIE elkarteko lehendakari izana da (2003-2005), idazkari nagusi aurretik, eta gaur egun ere zenbait proiektutan jarduten du elkartean.

Senez itzulpen aldizkariaren zuzendaria da 2006az geroztik, eta literatur itzulpengintzan ere ibilia da, bai itzultzaile bai kritikari. 31 eskutik blogaren eskuetako bat ere bada gaur egun.

Antzerkia jorratu du gehienbat bere sorkuntza lanetan. Hain zuzen ere, birritan irabazi du Toribio Altzaga antzerki saria: 1998an *Jon gurea*, *Parisen hatzana* lanarengatik, eta 2001ean *Aldi joana*, *Joana* antzerki lanarengatik. 2002an, *Elurrezko eskeletoa* ere argitaratu zuen. 2012an, berriz, *Bi komedia eta erdi*, eta *Tragedia emea*

antzerki-lanek ikusi zuten argia (Hiria). Narratibari dagokionez, berri-
z, *Innis Fodhla*, amonaren ipuin irlandarrak ipuin bilduma ar-
gitaratu zuen 1995ean (2012an berrargitaratua), *Henrike higanota*
2004an (del Olmok berak gaztelaniara itzulia), eta *Hiltzaile Ilego-
rria*, zeinari esker irabazi baitzuen Irun-Kutxa euskarazko nobela
saria.